



IRAGARKIA

I.- Tolosako Udalak peoien errelebo kontratu bat egiteko deialdia eta oinarri arautzaileak onartu zituen. Zehazki, lanpostua aldi baterako izaeraz beteko da, % 50eko lanaldian, jubilatu partzialak 65 urte betetzen dituen arte, hau da, 2025eko otsailaren 24a arte.

Behin eskaerak aztertuta, Lanbidek Udalari bidalitako hautagaietatik batek bakarrik betetzen zituen 4. oinarri arautzailean ezarritako baldintza guztiak; zehazki, honakoak:

a) Nazionalitate espainiarra edukitzea, edo beste edozein estatutakoa, baldin eta Europar Batasunak formalizatutako nazioarteko itunen baten arabera aplikaziozkoa bada langileen joan-etorri askea, Europako Erkidegoa Eratzeko Itunean zehaztutako eran.

b) 16 urte beteta edukitzea.

c) Eskola Ziurtagiria edukitzea edo hura eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

d) C1 gidatzeko baimena edukitzea.

e)1. hizkuntza-eskakizuna (HE) egiaztatzen duen agiria edukitzea.

f) Lanpostuari dagozkion lanak egiteko gai izatea, eta lan horietan behar bezala aritzea eragotziko lukeen gaixotasunik edo eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea.

g) Diziplina-espediente bitartez inongo Administrazio Publikoetako zerbitzutik baztertuta edo kanporatuta ez egotea, eta desgaiak ez izatea (erabatekoa zein berezia) enplegu edo kargu publikoak betetzeko.

h) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun-edo bateraezintasun-auziren batean sarturik ez egotea.

i) Langabetu egoeran egotea

II.- Epaimahaia 2022ko uztailaren 22an bildu zen, proba praktikoa egin aurretik. Helburua honakoa zen: proba aurretik epaimahaia osatzea, eta baldintzak betetzen zituen hautagai bakarrari egingo zitzaion proba praktikoarean nondik norakoak zehaztea.

Prozesuaren inguruan, Epaimahaiak honakoa adierazi zuen:



TOLOSAKO
UDALA

Lanbideri egin zitzaion eskaeran ez zen eskatu prozesuan parte-hartzeko baldintza gisa C1 gidabaimena. Oinarrietan, berriz, baldintza hori ageri da. Kontuan hartuta baldintza hori izan zela, hain justu, gainontzeko 24 hautagaiak baztertzeko arrazoia (alegia, ez izatea C1 gidabaimena), adierazi zuen beharrezkoa zela berriz egitea eskaera Lanbideri, oinarri arautzaileetan ezartzen diren baldintza guztiak eskatuz.

Hori horrela izanda, 09:00etan aurreikusita zegoen proba bertan behera uztea erabaki zen eta Lanbidera berriz bidaltzea lan-eskaintza irekitzeko eskabidea. Bada, epea uztailaren 22tik uztailaren 29ra, biak barne, egon da irekia, eta dagoeneko LANBIDEn bidali dio Giza Baliabide Sailari baldintzak betetzen dituzten hautagaien zerrenda.

Horretan guztian oinarrituta, antolakuntzako zinegotzi delegatu honek

EBATZI DU

- 1.- Baliorik gabe uztea 2022ko uztailaren 22ko 2022/2065 dekretua.**
- 2.- Ontzat jotzea uztailaren 22tik uztailaren 29ra bitarte LANBIDEn eskaera aurkeztu eta deialdian parte hartzeko onartuak izan diren behin-behineko zerrenda, ebazpen honi atxikitutako eranskinetakoak.**
- 3.- Izendatzea lehiaketa-oposizioko probak kalifikatuko dituen Epaimahaia, zeina honela osatuko den:**

LEHENDAKARIA

Begoña Garmendia Vazquez, titularra, Korporazioko idazkari orokorra, eta M^a Carmen Contreras Goikoetxea, ordezkoa.

MAHAIKIDEAK

Jose Angel Olariaga Chapartegi, Tolosako Udaleko obra lantaldeko arduraduna, eta berak izendatutako pertsona, ordezkoa.

Joxe Mari Otaegi Lopetegi, Tolosako Udal ingeniaria, eta berak izendatutako pertsona, ordezkoa.

Ixiar Oreja Unanue, Tolosako Udal arkitekto teknikoa, eta berak izendatutako pertsona, ordezkoa.

IDAZKARIA



TOLOSAKO
UDALA

Antton Rivero Urbistondo, Tolosako udaleko giza baliabide saileko teknikaria eta berak izendadutako pertsona, ordezkoa.

4.- Oposizio-faseko proba praktikoaren eguna finkatzea 2022ko abuztuaren 4ean (osteguna). Hautagai bakoitzak atxikitutako Eranskinean ezarritako orduan egon beharko du eta proba ondoren ezartzen den lekuan egingo da:

San Juan Kalea, 20 - San Esteban Auzoa - Tolosan

Tolosan, 2022ko abuztuaren 2an.

Epaimahai Kalifikatzaileko idazkaria

ESKUC64a56ff-16b0-4bad-98d6-23029f7d847f



TOLOSAKO
UDALA

ERANSKINA

ONARTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

08:30ean: ARAMBURU RUEDA, IKER
08:50ean: ARTUTXA BENGOETXEA, ODEI
09:10ean: DEL TESO ZAITEGI, AITOR
09:30ean: IRIARTE PEREZ, IGOR



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022PDLP0003-IRAGARKIA ONARTUAK/ANUNCIO ADMITIDOS (TOLOSAKO,,